

## GAKO EKONOMIKOAK

- Mundu mailako ziurgabetasunaren beherakada, merkataritza negoziazioen eta Brexit-aren arloko aurrerapenei dagokienez.
- Munduko burtsa nagusietan igoera orokorra.
- Arriskuarekiko gutxieneko beldurrak errenta finkoan onurak izatea bultzatzen du.
- Dolarraren ahultasuna.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Merkatuan ardura eragiten zuten ziurgabetasun gune nagusietan ematen joan diren urratsei esker, abendua tonu optimistarekin joan da. Merkataritzaren esparruan, AEBk eta Txinak azkenean adostasun bat lortu zutela ospatu zuten inbertitzaileek, euren merkataritza akordioaren lehen faseari dagokionez. Era honetan, tregoa garai berri bati ekin zioten formalki. Lehen ondorio gisa, Txinaren aurkako muga-zergak koarentenan gelditu ziren; 156.000 milioi dolarreko balioa zuten eta abenduan indarrean sartzea aurrekusten zen. Gainera, dagoeneko dauden ere murrizten dira. Ordainetan, Pekinek 50.000 milioi dolarreko balioa duten nekazaritza produktu gehiago erosteko konpromisoa hartu du, baina batez ere, Estatu Batuen jabetza intelektuala eskubideak hobeto babesteko eta finantza zerbitzuen sektore txinatarrerako sarbidea errazteko konpromisoa. Banku Zentralei dagokienez, biek eutsi zioten lehengo politika monetarioari. EGAFek datorren urterako tasak murrizteko aukera desegin zuen arren, 2020rako hauek egonkortzeko asmoa jakinarazi zuen, ia aho batez, eta honek burtsak babestu zituen. Legarde-ren esku hartzeak ere, EBZeko presidente berria, aktibo arriskutsuak bultzatu zituen, beherako hazkunde ekonomiko baten arriskuak orain txikiagoak direla baieztatu zuenean. Politikaren arloan, Boris Johnsonek zuzendutako britainiar kontserbadoreek inolako estutasunik gabe irabazi zuten Erresuma Batuko hauteskundeetan. Johnsonen gehiengo osoak urriari Bruselarekin hitzartutako EBetik irteerako akordioa onartzea ahalbidetu zion, gero, 2020 urtarrilean Brexit-a ezartzeko. Bien bitartean, makro datuek dezelerazio egoera batean gaudela erakusten jarraitzen dute, baina jardura eta kontsumo datu batzuen erregistro onenak lurra ukitzen ari garela eta pixkanaka mundua merkataritza gerraren ondorioekiko zuten beldurra gaintzen ari dela iradokitzen du.

## ERRENTA ALDAKORRA

Mundu mailako indize nagusien igoerarekin amaitu da hilabetea. Hilabete hau banku zentralen esku hartzeak markatua izan da, baina batez ere, AEB eta Txinaren arteko negoziazioetan izan diren aurrerapenek eta Brexit-aren eboluzioak markatu dute abendua, zeinak Europako burtsak urteko maximoen gunean ixteari bidea eman baitu. Ibex 35en portaera erlatibo onena nabarmendu behar da, % 2,11 igo baita, bankuaren eta kontsumo sektorearen jardura egokiari esker. Bestalde, burtsa amerikarrek maximo historiko berriekin agurtu dute abendua, esaterako, Nasdaq-ek lortutako 9.000 puntuak, aurrez inoiz lortu ez duen maila izanik. Japoniak, aldiz, % 1,50 inguru handitu du balioa. Hala ere, merkatu sortuberriak izan dira merkataritza gerraren aurrerapenetatik onura gehien ateratu dutenak, guztien artean % 7tik gorako igoera lortu baitute.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.549,20	EUR	%2,11	%11,82
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.745,15	EUR	%1,12	%24,78
S&P-500	AEB	3.230,78	USD	%2,86	%28,88
DOW JONES	AEB	28.538,44	USD	%1,74	%22,34
NASDAQ 100	AEB	8.733,07	USD	%3,92	%37,96
NIKKEI-225	JAPONIA	23.656,62	JPY	%1,56	%18,20
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.114,66	USD	%7,17	%15,42
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.358,47	EUR	%2,89	%25,19

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Arriskuarekiko gutxieneko beldurrak eta arriskutsuagoak diren posizioetarako gogoak zor subiranoaren errentagarritasunen gorako mugimendua erraztu du, bai Europan, bai AEBetan. Era honetan, hamar urterako bonu amerikarrak 14 oinarritzko puntu igo ditu, % 1,92ra arte, eta hamar urterako tasa alemaniarrak 18 puntu igo ditu, % -0,19ra arte. Espainiako zorrari dagokionez, hamar urterako bonuari eskatutako errentagarritasunak 5 puntu igo ditu, % 0,47ra arte eta, ondorioz, arrisku-prima estutu egin da. Zor korporatiboak ere urtean zehar ikusitako hobekuntzaren bidean jarraitu du.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,38	0,00	-0,07
	6 HIL.	-0,32	0,00	-0,09
	12 HIL.	-0,25	0,00	-0,13
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,60	0,03	0,01
	5 URTE	-0,47	0,11	-0,16
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	10 URTE	-0,19	0,18	-0,43
	2 URTE	-0,39	0,00	-0,15
	5 URTE	-0,08	0,01	-0,41
	10 URTE	0,47	0,05	-0,95

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK

Arriskuarekiko gutxieneko beldurra eta Estatu Batuen eta Europaren arteko tasen diferentzialak estutzea izan dira dolarra ahultzearen (euroaren aurrean) arrazoi nagusiak. Honakoa, urtean zehar eman den mugimenduaren aurkakoa da, non dibisa amerikarrak uste baino indar handiagoa izan duen. Beste alde batetik, lehengaietan, petrolioaren prezioa % 8,28 igo da, AEB eta Txinaren arteko merkataritza akordioak mundu mailako hazkunde eta, ondorioz, gordinaren eskaera indartuko duen itxaropenarekin. Urreak, aldiz, % 4 handitu du balioa, ontzako 1.522,83\$era iritsiz.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg